

Asteburuko proposamenak →



Sorginak deitzen diren horien jakintza galdua da; etzi, sendabelarrak ezagutzeko ibilaldia egingen dute. BERRIA

Sorginkerietatik at

Zugarramurdi ▫ Bertso, olerki eta sendabelarrez josi, Sorgin Ehizaren lehen aldia egingen dute asteburuan

Nora Arbelbide Baiona

Sorginkeriaren itzalpean badela besterik ikustera gonbidatuko du asteburu honetan Zugarramurdin iraganen den lehen Sorginen Ehiza izeneko jardunaldiak.

Eta, funtsean, *sorginak* deitzen diren horiek nor ote ziren zuzen? Galdera horrek erantzun mitifikatu anitz sortzen ditu, eta Zugarramurdiko herritar batzuk desmitifikatzearen bidetik joatea proposatuko dute asteburu honetan. Taldea bera ez da elkarte osatu bat, baizik eta herriko lagun talde bat sorginkerien mito



Sorginen museoan iraganen da Bertso Trama eta olerki gauraldia. ARP

horretaz «asperturik» bildua dena, lagun horietako bat den Helena Xurio Arburuak erranik. *Sorgin* deitzen ziren horiek belarrik ongi ezagutzen zituztela, hori bederen jakina da, Arantxa

Zubietak eman sendabelarrei buruzko ikastaldia egingen dute etzi. Goiza belarren ezagutzen eta biltzen iragan eta, Zugarramurdiko lezeen inguruan, arratsaldean ukendu bat prestatuko dute

Akelarreanean. Izan ere, Zugarramurdin bada zernahi sendabelar, eta bereziki lezearen inguru horretan. Sendabelar horietan jakintsu direnak harrituak egonen dira hor gaindi ikusi landareen aberastasunaz, Xurio Arburuak erranik. Landare ezezagun anitz daude, eta ezagunen artean, zenbait, segur, ez direla naturalki leku horretakoak. Itxura guztien arabera noizbait landatuak dira. Horiek horrela, bada ikertzeko eta ikasteko, antolatzaileek diotenez. Eta, beraz, lehen ibilaldi horrek jarraipen bat izanen duela, izena ahal bezain laster eman beharra da, deitu zenbaki honetara: (0034) 948-59 92 29. Urririk da eguna. Arratsean, zortzietan, Sorginen Museoan beste inkezio bat aipatuko du *Harresi ostean pareta* olerki irakurketak. Koldo Izagirre, Joseba Tapia, Carlos Belda eta Toni Strubell, euskaraz eta katalanez, frankismoaz ariko dira.

Sorginen Bertso Trama

Igandean, 17:00etan sorginkeria gaitzat ukanen duen Bertso Trama gonbidatzen dute. Hori ere Sorginen Museoan iraganen da. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariekin. Tramagileak: Estitxu Arozena, Koro Irazoki eta Ellande Alfaro. Aitzinetik, herriko haurrak ariko dira kantuz. Lagunartean antolatu baita dena, laguntasunez ere etorriko dira artista horiek guztiak. Ikusgarrien sartzak Marixan ostatuan salgai dira 5 euroan.

Sorginen Ehiza izeneko ekitaldi horren lehen aldia bada, ez da azkena izanen, ordea. Hasteko, hemendik bi urtera zerbait handiagoa egiteko xedea dute. Orduan baitira beteko 400 urte Zugarramurdiko hamaika emazte sutan erretzera kondenatu zituztenetik, sorginkeriak egiten zituztelakoan.

Urtemuga horri begira nahi izan dute, justuki, oraindik nahi giroa berotzen. Eta, funtsean, garaian ere ez zen urte bateko afera izan sorginen kontrako ehiza. 1609an, adibidez, jadanik hasiak ziren Lapurdin. Orduan Pierre De Lancre Bordeleko Parlamentuko kontseilaria sorginkeria ikertu eta borrokatzeko aginduarekin etorri zen Euskal Herrira. Asteburua osatzeko, bertso, olerki eta Zugarramurdiko lezearen inguruko ibilaldiaz gain, Urdazubiko eta Sarako lezeak ez dira hain urrun. Larrazkeneko koloreez josiak, eguraldia lagun baldin bada, izanen da zer ikus.

SORGINEN EHIZA JARDUNALDIK

- Non. Zugarramurdin (Nafarroa).
- Noiz. Asteburuan eta igandean.

Oskorri taldea Urruñako ikastolaren eta Ziburuko kolegioaren alde

Nora Arbelbide Baiona

Urtero bezala, Urruñako ikastola eta Ziburuko Larzabal kolegioak beren aldeko kantaldira gonbidatzen dute. Hazia kultur elkarrekin eta Goierriko ikastolak antolaturik, aldi honetan, Oskorri dute ekarriko Legazpiko Bandako 40 musikariek.

Lehen notak txalapartariaren izanen dira, eta, ondotik, ikastola haurrak ariko dira kantuz. Oskorri eta Legazpiko bandak berena bururatu eta besta bera ez da bururatuko talo gustuko erroremia baitute pentsatua, Kuxkuxtu txarangak alaituko duena.

13. urtea da aurten. Orain arte bildu sostenguak kolegioa berri-tzen lagundu du, eta, orain, Urruñako ikastola da bereziki eskasean, handitu beharrean baita.

KANTALDIA

- Noiz. Igandean 16:30ean.
- Non. Urruñan (Lapurdin).

Festa nagusi larunbatean Iruñean, hiria eguna ospatzeko

Iñigo Astiz

Ongi baliatu behar da denbora, eta larunbatean goizean goiz hasiko dira Iruñeko egunaren ospakizun ekitaldiak. Goizeko zazpi eta erdietan kantatuko dituzte aurorak Muthiko Alaiak korokorok. Goiz hasi bai, baina ez da goiz bukatuko, ekitaldiz beteta egongo baita hortik aurrera eguna.

Musikaz lagundutako hamaitaketa izango da Iruñeko auzoetan. Eguerdian elkartuko dira denak Gazteluko plazan, ohikoa den Larrain dantza dantzatu eta Gora Iruñea! sari banaketa ikustera. Iruñeko gazteei emango diete aurtengoa. Bazkaria izango da, ondoren, Jito Alain. Kontzertuak ere izango dira 17:00etan Gualitxoren, Vendettaren eta talde sorpresa baten eskutik.

IRUÑEKO EGUNA

- Zer. Bazkaria, kontzertuak...
- Non. Iruñean.
- Noiz. Larunbatean, 07:30etik hasita, egun guztian.